

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Prozedura hauetan interesdun izan litezkeenei dei egitea: 48/2020 prozeduran, Ana María Pérez Colinas andreak jarri duena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian bideratu dena, eta 25/2020 prozeduran, Ainhoa Aguirre Galdos andreak jarri duena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian bideratu dena

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, honako hau jakitera ematen da:

– Ana María Pérez Colinas andreak urtarrilaren 10eko 10/2020 Foru Aginduaren aurka 48/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtso laburtua jarri eta berorren espedientea Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegira bidali egin dela. Agindu horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio orokorreko 2018ko Enplegu Publikoko eskaintzan Administrazio Orokorreko eskalako, Administrazioen azpieskalan funtzionario gisa sartzeko deialdian oposizio-fasearen behin betiko emaitzak argitaratzea onartu zuen epaimahai kalifikatzailearen erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezetsi zen. (Expte.243/2018(8259)).

– Ainhoa Aguirre Galdós andreak azaroaren 22ko 476/2019 Foru Aginduaren aurka 25/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtso laburtua jarri eta berorren espedientea Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegira bidali egin dela. Agindu horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio orokorreko 2018ko Enplegu Publikoko eskaintzan Administrazio Orokorreko eskalako, Administrazioen azpieskalan funtzionario gisa sartzeko deialdian oposizio-fasearen behin betiko emaitzak argitaratzea onartu zuen epaimahai kalifikatzailearen erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezetsi zen. (Expte.243/2018(8259)).

Iragarki honen bidez epatu egiten da prozeduran interesa izan dezakeen oro, autoetara bertaratu eta parte har dezan. Horretarako, bederatzi egun izango dituzte interesdunek, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Prozesuko epeei berrekin ondoren, epatze hori izapidetzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 10a

Funtzio Publikoko zuzendaria
ADOLFO LANDER VERA